

ateak ireki

2023ko ekainaren 25etik uztailaren 16ra

Euskal komunitateko **53** gazte Estatu Batuar
Goierriko **familietan**

Eman izena apirilaren 17a baino lehen

www.ateakireki.eus

ateakireki@ateakireki.eus

Zer da Ateak Ireki 2023?

Ateak Ireki 2023 egitasmoak Ipar Ameriketako 16-25 urteko euskal jatorria duten gazteak ekarriko ditu Goierriera aurtengo udan. Egonaldia Goierriko familiekin egingo dute. Ekainaren 25ean hasiko da eta uztailearen 16an amaitu.

Funtzionamendua

Etorriko diren gazteak Goierriko familietan egongo diren arren, ATEAK IREKI egitasmoak, 3 asteko egitarau osoa antolatu du gazteentzako (webgunean ikusgai). MAIZPIDErekin batera, astean zehar Goierri eta Euskal Herri mailako txango eta klaseak antolatu ditugu. Etorriko diren gazteen arduradun, ATEAK IREKiko langileak, MAIZPIDEko irakasleak eta Estatu Batuetatik etorriko diren gazteen 2 begirale izango dira. Aste-bukaerak familiekin igaroko dituzte.

Eskaria

Estatu Batuetako 16 eta 25 urte bitarteko 53 gazte eman dute izena. Gazte hauek hartzeko Goierriko 53 familia behar dira.

Familien Irizpideak

- Euskal Hiztunak izatea
- Gazte bat hiru astetan mantentzeko gaitasun ekonomikoa edukitzea (gosari, afari eta aste bukaerak. Bazkariak ATEAK IREKI programa)
- 16 eta 25 urte bitarteko gazteren bat izateak izango du lehentasuna
- Ingelesez komunikatzeko gaitasuna edukitzea

Eskaintza

Aukera paregabekoa da, bertako eta Estatu Batuetako euskal komunitateko familien eta gazteen arteko harremanak sortuz Goierriko eta AEBtako euskal komunitatearen artean zubiak eraikitzeko. Urte gutxi batzuek barru, estrategikoko izan daitezkeen komunikazio eta harremanak lortu eta sendotuta.

Izen-ematea

Izena emateko epea: apirilak 17

www.ateakireki.eus

ateakireki@ateakireki.eus

